


BERRIGARA

4. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, irailak 22



**Ainhoa Agirreazaldegi
maisuen artean**


OPEL VECTRA BERRIA



merit

**GUTXIK EMATEN DUTE
HAINBESTE HAIN GUTXIREN
TRUKE.**

OPEL BANATZAILE OFICIALAK,
ESPERIENTZIAZ ONENAK.

OPEL 

**TALLERES
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)



Altzarien dekorazio eta erakusketa

• BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA

• EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!

• LEIHO TERMOAKUSTIKOAK

• ATEAK

• ARMAIRUAK

• EGURREZ EGINDAKO LANAK




AROZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefonoa eta Faxa: 76 54 91

**ZATOZ GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**



TORREALDAY

aholkulari-kontsultoreak

Bidekurutzeta 6, 2 Ezkerre

Tfnoa eta Faxa: 76 53 80

- ARLO FISKALA
- KONTABILITATEA
- FRANKIZIAK
- GIZA BALIABIDEAK

- ARLO LABORALA
- ASEGURUAK
- AUDITORIAK

1979tik enpresa txiki eta erdi mailako enpresen zerbitzura profesionalen
osaturako taldea, orain Bergaran

BERRIOTALDE JAUREGIA
 BERRIGARA
 Telefonoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:
 BERRIGARA Elkartea.
 Berrigara, 13 Bergara.
 Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:
 Eusebio Azkarate

Redakzioa:
 Eduardo Mendibil
 Eusebio Azkarate

Publizitatea:
 Eusebio Azkarate

Kopidatzaileak:
 Eusebio Elorza

Testuen zuzenketak:
 Eusebio Plazaola

Redakzio kontseilua:
 Eusebio Elorza

Komikiak:
 Eusebio Rodriguez

Kanaketa:
 Eusebio Ortega & Jon Alvarez

Irakurketa:
 Eusebio Ugalde

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Argitaratzailea:
 Eusebio Azkarate

Z E B E R R I D A ?

AINHOA ARBELAITZ Xipizaro Ludotekakoa

- Zein erantzun izan duzue urte hasieran?

- Bueno, astelehenean eman genion hasiera ikasturteari eta momentuz 18 ume ditugu baina kopurua gehitzen doa egunetik egunera. Momentuz astean zehar bi talde izango ditugu: bata 17.15etatik 18.30etara eta bestea 18.45etatik 20.00-etara. Astebukaeretan ere beste bi talde egongo dira, goizez 10etatik ordu batera eta arratsaldez 15.30etatik 18.30etara. Gogoratu, bestalde, Osintxun ere lanean ari gara. Interesatuak, 76 23 76 telefonora deituz argibide gehiago jaso dezakete.

- Zein da zuen eskaintza?

- 3 urtetik 12 urtera bitarteko neska-mutikoei



eskolatik kanpoko aisialdia ahalik eta ondoen pasatzeko aukera ematea. Bere inguruko lagunez gain beste batzukin erlazionatzeko aukera daukate hemen eta hori da helburu nagusia: beste jende bat ezagutu, elkarrekin primeran pasatu eta, bide batez, euskara bultzatu.

"Eskolatik kanpoko aisialdia ondo pasatzeko aukera ematen dugu"

I T U R R I O N E T I K

Xamatzen X. urteurreneko jaialdia Udal Pelotalekuaren berrinauguraziorako

Xamatzen dantza taldea bere X. urteurrena ospatzeko prestatzen ari den jaialdia azaroaren 25ean izango da Frontoian. Bide batez, jaialdi horrekin Frontoiko berrikuntza lanak inauguratuko dira. Xamatzek hainbat ekitaldi antolatu ditu urtean zehar bere hamargarren urteurrena ospatzeko eta azaroko jaialdi horrek amaiera emango die ospakizunei. Uztailetik ari dira Xamatzeko kideak jaialdia prestatzen eta bertan dantza taldeko partaide izandako guztiak parte hartzea espero da. Frontoiari dagokionez, berrizte lanak bide onetik doaz eta egun horretarako lanak amaituta egongo direla baieztatu du obra egileak.

E S A N D U T E

"Euskal Autonomi Elkartearen apostua ezin daiteke eskulan merkean edota lastozko teknologian oinarritu. Industria indar moduan aurrera egin nahi badugu, eta munduko herrialde aurreratuenen mailan egon nahi badugu, teknologia arloan puntan egotea ezinbestekoa da"

JABIER RETEGI
 Industria sailburua
 DEIA

"Okerrena ez da galtzea, horrela galdu eta gero geratzen zaizun tonto aurpegia da txarrena"

AGUSTIN ARANZABAL
 Futbolaria
 ETB

"Futboleko lehen urratsak eman nituenean Gaztelurekin jokatu nuen Realean eta, orain, ilusio handia egiten dit Aranzabalekin batera selekzioan jokatzek"

JOSE MARI BAKERO
 Futbolaria
 SER



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Legebiltzaren Kultura sailaren laguntza jaso du




DOS POLICIAS REBELDES

Ostirala: 22.30

Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.



ASTERIX EN AMERICA

Igandea: 11.30.



Zinea

▼▼ *El príncipe de Bel Air* telesailean lortutako arrakastaren ondorioz, **Will Smith** aktoreak pantaila haundira salto egin du. Gaizkile batzuek Miamiko polizi komisaldegitik 100 milioi dolar heroinan lapurtu ondoren, *Burnett* eta *Smith* agenteek (**Martin Lawrence** eta **Will Smith**) dirua topatu beharko dute, kontrako kasuan komisaldegia itxiko dietelako.

▼▼ **Goscinyk** (gidoiak) eta **Uderzok** (marrazkiak) sortutako pertsonaiek mundu osoan arrakasta izan dute. Kristo aurreko 50. urtean erromatarrek Galia osoa armaz hartuta daukate baina galiar herri ausarta batek indarrez sartu nahi dutenei eusten die. Galiar eroien artean, Asterix, Obelix, Panoramix, Abrarakurzix edota Asuranzeturix ditugu.

▼▼ Erakusketa.

San Martinetako margo lehiaketako lanik onenak Kultur Etxean ikusgai izango dira igandera arte. Guztira, 33 margolarik hartu zuten parte igandeko lehiaketan. Juan Carlos Canilla, Julio Gómez eta Javier Soto sailkatu ziren lehen postuetan eta herriko onena Mari Paz Alustiza izan zen.

Deiak

▼ **Barnetegiak.** IKA euskaltegiaren egonaldiak Lesaka eta Donostian. Argibideak (948) 63 79 96/ 45 15 55 telefonoetan.

▼ **1933an** jaiotakoen bazkaria igandean Antxonin. Izen-ematea Intxorta tabernan.

▼ **Ikastaroa.** Gerontologiako laguntzaile ikastaroa azaroaren 2tik maiatzaren 30era Arrasaten. Argibideak 79 02 11 telefonoan.

▼ **Mendi irteera.** Gorla Alpinok eta Pol-Pol Mendizale Taldeak Lizarrusti-Lareo-Larraitz veterano-entzako mendi irteera antolatu dute igande honetarako. Irteera goizeko 7etan egingo da frontoian. Txartelak Pol-Poleko barran daude salgai.

Ogia

▼ **Igandea 24:** Mizpildi

FARMAZIAK

▼ **Ostirala 22:** Estella/Amezua.

▼ **Larunbata 23:** Mozos/Ruiz.

▼ **Igandea 24:** Mozos/Morales.

▼ **Astelehena 25:** Camacho/Az.

▼ **Asteartea 26:** Puy/Español.

▼ **Asteazkena 27:** Guallar/Cor.

▼ **Osteguna 28:** Estella/Trizar.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Ainhoa Agirreazaldegi

Larunbateko bertso jaialdian izango da

Larunbatean gaueko 10.30etan JARDUN EIkarteak antolatutako bertso jaialdia izango da Mariaren Lagundian. Angel Peñagarikano, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Jon Maia-rekin batera Lizardi saria irabazi berri duen Ainhoa Agirreazaldegi bergararrak (17 urte) parte hartuko du.

- Zer suposatu du Lizardi saria irabazteak?

- Ilusio handia egin dit parte hartu baino lehen ez nuelako ametsetan ere egiten txapelketa irabaztearekin. Txapelketa 18 urtetik 22 urtera bitartekoentzat izaten da eta horrez gain sariren bat irabazi duten gazteagoak ere gonbidatzen dituzte. Guztira 13 lagun izan ginen eta niretzat sorpresa bat izan zen garapena eskuratzea.

- Noiz izango zaitu-gu nagusien txapelketa?

- Ba oraingoz itxaron egin beharko dut. Aurten-go Gipuzkoako Txapelketan ezin dut parte hartu 18 urte ez ditudalako eta Euskal Herrikoa 97an da baina aurretik Gipuzkoakoan parte hartu beharra



"Lizardi saria irabazteak sekulako ilusioa egin dit".

daukazu. Eta Gipuzkoako hurrengoa 1999an da. Auskalo nola egongo diren gauzak orduan...

- Beste txapelketarik begibistan?

- Bueno, abenduan Xenpelar saria izango da eta horrez gain orain sortu zaidan saio eskeintza aprobetxatzen ahalegin-

duko naiz, bai jendeari eta baita nere buruari erantzutei saiatuz.

- Zer sentitzen da bertsolari hain ospetsuekin aritzean?

- Ilusioa eta bertsoetan ondo aritzeko beste aukera bat. Beti ere neu izaten ahalegintzen naiz, bada-kitelako ez naizela bera-

iek egiten dutena egitera iritsiko. Ez naiz saiatu behar eurak bezalakoak izaten eta jendeak ere ez dezala espero, bestela akonplejatu egingo nintzateke. Baina hobetzeko motibazioa hor dago, lagunekin bertsoetan izaten dudana- ren antzerakoa.

- Zapatuan Joserra Gartzia izango da gaitzartzailea. Ze gairekin moldatzen zara hobeto?

- Ezin dut esan. Egun ona izanez gero gauza mordo bat bururatzen zaizkizu eta horrelakoetan edozein da gai ona. Dena den, sormena eskatzen duten gaiak gustatzen zaizkit eta ofiziotan, adibidez, gustora ibiltzen naiz. Baina garrantzitsua goa izaten da egun ona izatea. Nola? Egun normala pasatuz eta kontzentratuta egonez. Ni, adibidez ezin naiz saio batera joan etxeko bazkari batetik edota lagunekin parrandan ibili eta gero.

- Bukatzeko, definitu bi hitzetan zurekin izango diren bertsolariak.

- Egaña, argia; Lizaso, pronto haundiko bertsolaria; Jon Maia, berritzailea eta Peñagarikano, saiatua.

"Bat bateko bertsoetan sormena eskatzen duten gaiak gustatzen zaizkit"

MEMESA

P
phanton

IRIMO

ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA

SFK

Bergarako UNEDeko EKD: 18 urte oparo euskalgintzan

1977ko udazkena zen. Urtebete lehenago sortua zen Bergarako Urrutiko Unibertsitateak sail berria sortu zuen: Euskal Kultura Departamentua. Bere lehenengo pausua Euskaltzaindiarekin hitzarmena sinatzea izan zen D eta B mailako tituluko klaseak ikastetxean eman ahal izateko. Ordurarte azterketa librean bidez bakarrik lor zitezkeen hauek eta Bergarako izan zen ikasleak prestatzen eta bertan azterketak egiten hasi zen lehen ikastetxea. Euskal Geografia, Historia, Literatura, Morfosintaxia, Itzulpena, Lexikoa, Didaktika... eta beste gai asko landu ziren eta material berri ugari sortu zen, gero beste hainbat tokitan ere erabiliiko zena.

Ikasle gainezka gogoratzen dugu ikastetxea urte haietan. Behin baino gehiagotan 1000 ikasle izatera heldu ginen eta sarrera azterketa baten bidez 200 kanpoan laga beharrean izaten ginen hainbeste jenderendako lekuri ez zegoelako.

1982an titulu banaketa Euskaltzaindiak utzi eta Hezkuntza Sailak hartu zuenean Euskal Herriko lehenengo Zentru homologatua bihurtu zen UNED. Jaio berria zen EGA tituluko ikasketak eman eta azterketak ikastetxean bertan egin ahal izango zituen.

EGA lortu ondoren ikasten jarraitu nahi zutenentzat Sakontze Maila sortu zen 1985ean Itzulpena, Fonetika-Dialektologia, Testu Azterketa, Literatur Kritika eta honelako gaiekin, eta handik gutxira, jendeak gehiago eskatzen zuela ikusita, Sakontze Maila II jarri genuen.

Baina hauek ez dira izan departamentuaren ekingiza bakarrak: esandakoaz gain berrogei ikastaro berezitik gora antolatu ditu UNEDek euskal kulturaren arlo ezberdinetan: soziolinguistika, literatura unibertsala eta euskalduna, dialektologia, artea, euskararen historia, hizkuntzalaritza, etab. beti gai horietan jantzienak dauden irakasle eta adituak ekartzen saiatuz.

Argitalpenak ere egin ditugu, esate baterako: EGA Hegan eskuliburua (25.000 ale salduak) eta Bergarako Euskara herri bateko euskarari buruz egin den azterketarik osoenetariko.

Ikerketak ere badu bere lekua: momentu honetan, Bergarako Udalarekin lankidetzan, "Lexiko Bereziak" proiektuan sartuak gara. Lan taldeen bidez Ikazgintza, Karegintza, Burdingintza, Zurgintza, Ehungintza etab ikertu dira eta beste arlo batzuekin hasteko asmoa dago datorren urtean.

Ikastaro berriak, lehengoaz gain, Ikertze Maila izeneko ikastaroa jarriko da martxan. Ikasleek ikerketa gaitasuna garatzea da helburua eta ohizko ikasketetan jorratzen ez diren euskal filologiako eta literaturako gai interesgarriak landuko dira. Gerora begira *Idazketa-itzulketa* ikastaroekin hasia da gure asmoetariko bat, alor honetako beharrak eta eskabideak handiak baitira.

Ez dago ondo geuk esatea, baina euskal kulturaren foko garrantzitsua da Departamentu hau. Hamar mila ikaslelik gora pasatu dira bertatik, 150 irakaslelik gora aritu dira -tartean zenbait euskaltzain-, 200 lan monografiko egin dira, euskarara munduaren bilgune eta kontsultaleku bihurtu da. Esan ikasle kopurua 300 eta 600 artean dabilela azken urte hauetan; EGAK puxkat behera egin du baina beste ikastaroetarako gero eta eskakizun eta egarri handiagoa dago. Diru kontuan, xehetasunetan sartu gabe, esan dezakegu ez dela asko kostatzen departamentu hau, matrikulatuko eta bestelako sarrerak inportanteak baitira.

Departamentuaren gainean laino beltz bat kokatu den une honetan, dagokionari eskatzen diogu gure iragan onari etorkizun hobea ziurta diezaiola, eta aldi berean gure ikasle eta irakasle diren, izan diren, eta izango direnei, eta oro har euskaltzale guztiei, beren bultzada eta animoa.

Bizimodu luzea eta emankorra izango dugun itxaropenean.

**BERGARAKO UNEDEKO
LANGILEEN ASANBLADA**

Lazo urdina eta preso politikoaren argazkiak

Bergarar preso politiko batzuek 16 urte bete behar dituzte espetxean eta ordutik hona ia urterot jarri ditugu Pazkua eta San Martin jaietan beraien argazkiak Udaletxeko balkoian. Azken lau urte hauetan izan ezik, inoiz ez dugu arazorik izan. Azken lau urte hauetan jaietako egun guztietan argazkiak ipini eta gure herriko agintariek kendu egin dituzte. Onartezina iruditzen bazaitzere, jarrera honen arrazoia Udaletxean inongo seinu politikorik nahi ez izatea zela uste genuen. Onartezina, Euskal herriko errealitate gordinarren erakusle baitira gure herriko 14 presoak eta Euskal Herriko 600ak. Aurten berriz, arrazoia ez zela hau jakin izan dugu; hilabeteak baitira Jose Mari Aldaiaren askatasuna aldarrikatuz lazo urdin bat dugula Udaletxean. Orain konturatu gara, argi eta garbi zein den arrazoia: Udaletxea ez da bergarar guztion etxea Ajuria Eneako paktuko ideologiarik bat datozenen etxea soilik baizik.


Oraingoan berriz erakutsi duzue jarrera fauzistaren izaera herriko 14 pertsonen argazkiak kenduz eta lazo urdina mantenduz.

Noiz arte jarraitu behar duzue errealitate ikusteko asmorik gabe? Noiz arte preso eta beraien senitartekoen sufrimendua luzarazten? Noiz arte Francoren garaiko metodoekin?

Zuen demokrazia ezaren-aurrean jarrera berkar bat baino ez zaigu gelditzen: orain arte bezala amnistiaren aldeko borrokan tinko jarraitzea eta beste gauza askoren artean, herriko jaietan bergarar preso politikoaren argazkiak udaletxean erautela ziurtatzea. Zuek argazkiak kendu adina aldi jarriko ditugu, presoek kartelaz jarraitzen duten bitartean Euskal Herria ez dagoela asko esan nahi baitu eta herri honek Euskal herria eskatu arte borrokatuko du.

**BERGARAKO AMNISTIAREN
ALDEKO KOMITEA**

Tiira biraka



UNAI AZKARATE

◆ **Bederatziurrena**

Irailaren 26tik urriaren 4ra bitartean San Francisco de Asisen omenezko bederatziurrena 19etan Monja Zaharretan.

◆ **AEK**

Datorren ostiralean 7etan euskaltegiko inaugurazioa. Matrikula zabalik oraindik.

◆ **Dantza**

Moises Aspiazu taldeak urriaren 2an hasiko ditu klaseak. Izen-ematea 76 15 40 telefonoan.

◆ **Euskara UNEDen**

EGA, Sakontze eta Ikertze maila ikasteko matrikula zabalik. Argibideak: 76 13 42.

HILDAKOAK

Maria Pilar Aranes Inza

Irailak 11, 86 urte

Ana Rot Camerut

Irailak 18, 72 urte

JAIOTAKOAK

Iniigo Agirrezabal Urkiola

Irailak 13

Amaia Alzelai Gil

Irailak 14

Fatxadak konpontzeagatik dirulaguntzak emango dira

Udalbatzak fatxadak konpontzeagatik dirulaguntzak ematea onartu zuen asteazken eguerdiko Plenoan. Fatxadak pintatzeagatik, etxebizitza bakoitzeko, 15.000 pta. ko dirulaguntza emango du Udalak, pintatu, rasatu eta pikatzeagatik 35.000 pta. eta, azkenik, elementu arkitektoniko edota artistikoak dituzten fatxadak berritzeagatik 40.000 pta. ko dirulaguntzak emango dira.

Era berean, Imanol Bolinaga alkate ohiak lehengo merkatu plazari buruz Auzitegi Gorenaren aurrean ezarrirako baliogabetze-errekurtsoan aurkezteko erabakia hartu zen aho batez. Bolinaga alkate zenean merkatu zaharreko eraikuntza bertan behera botatzeko erabakia hartu zen baina ondorengo legealdian, Jose Luis Elkoro alkate zela eta informe tekniko batetan oinarrituz, edifizioa mantentzea



Elementu artistikoak dituzten fatxadentzat 40.000 pta. ko dirulaguntzak emango ditu Udalak.

onartu zen. Iruñeko Administratioarekiko Auzitarako Epaitegiak HBk eta EAk edifizioa mantentzeko hartutako erabakiari beronespena ematen dio. Orain, Teodoro Cacho abokatuak, Udala ordezkatzuz, akordio hura defendituko du Auzitegi Gorenean.

Bestalde, alkateak proposatuta, Javier Gabilondo (EAJ) eta Jose Antonio Etxeberria (EA) izango dira Udalaren

ordezkariak Suradesan, HBk kontrako botoa eman zuen arren. Jesus Mari Garitanok: *"Berriz ere gu baztertzea lortu duzue. Udaletxea baino, Batzokia, Alkartetxea eta Casa del Pueblo bat da hau. Ez gaude batere ados"*. Bestalde, Garitanok Plenoak arratsaldez izateko eskaera egin zuen. Alkateak normalki Plenoak arratsaldez izango direla erantzun zion HBko zinegotziari.

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62



zumelaga

JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

Bertso Jaialdia

IRAILAK 23,
LARUNBATA

GAUEKO 10.30etan

MARIAREN
LAGUNDIAN

Ainhoa Agirreazaldeg

Andoni Egaña

Sebastian Lizaso

Angel M. Peñagarikano

Jon Maia

ANTOLATZAILEA

Jardun

Gai jartzailea: Joserra Gartzia

SARRERAK OHIZKO LEKUETAN SALGAI
Aldez aurretik: 600 pzta. / Takilan: 700 pzta.

LAGUNTZAILEAK: Bergarako Udala - Gipuzkoako Foru Aldundia



San Martin jai ederrak

Aurten astebukaeran izan dira eta, kanpotar asko hurbildu da Bergarara **San Martinetan**. Bertakook ere primeran pasatzeko aukera izan dugu, giro ederra izan baita kalean.

Ostiralean eman zitzaion hasiera San Martin jaiei eta **tanborradak** ikusmin handia sortarazi zuen. Aritzeta, Urdinak, Arrano, Xamatx, Zuloa eta Lasai-Tokiko tanborreroek, Udál Musika Bandaren laguntzaz, San Martingo martxa, Ollagorra, Campeones, Zuloa, Pertxa eta Bergarako himnoak eskaini zituzten, besteak-beste, ia bi ordu iraun zuen tanborradan. Unerik hunkigarriena, tanborrada San Martin plazara heldu eta San Martinen gurutzatzea egin zenean etorri zen. Amaitzeko, elkarteetako neska banderadunek euren banderak astindu zituzten Udaletxeko balkoietan, tanbor hotsen eta ikusleen txalo zaparraden artean. Esan dezagun, presoan senitarteko eta lagunek presoan egoera salatu eta euren alkartasuna adierazi zieten plaza inguruko enkartereladan. Larunbateko **haurren tanborrada** ikusteko ere jende asko bildu zen kaleetan.

Igandean, BEARTEK antolatutako **pintura lehiaketan** 33 lagunek hartu zuten parte eta Juan Carlos Carrillo izan zen garaile. Mari Paz Alustizak eraman zuen Bergarar onenaren saria. Salbamenduko txakurrek Labe-garaietan egin zuten erakustaldia ikustera ere jende asko hurbildu zen domeka goizean. Moises Azpiazuren omenezko **dantza sueltoko txapelketan**, berriz, Edu Muruamendiaraz eta Amaia Agirre izan ziren onenak 17 dantza bikoteren artean. Zapatu goizeko Abankargazko **plater tiraketan**, Alfonso Ramos donostiarra izan zen onena. Jende asko hurbildu zen Gorkako kantina ingurura, antzinako eskopetak probatzeko aukera ere izan zuten eta benetan ikusgarria gertatu zen. Zapatu gaueko **suzko erroberak**, azkenik, aurre egin zioten euri zaparradari.



◆ **Eskulan ikastaroa**


Jardun Elkartek eskulan ikastaroa antolatu du urriaren 3tik apirila bukaera bitartean. Klaseak astearte eta ostegunetan emango dira Kartzela Zaharrea, 15.30etatik 17.00etara. Izen-ematea Jardunen (76 08 19 telefonoa) egin beharko da irailaren 28a baino lehen. Izen-emateak 5.000 pta. balioko du bazkideentzat eta 6.000 Jarduneko bazkide ez direnentzat.

◆ **Udal Euskaltegia**

Udal Euskaltegian oraindik aurtengo ikasturterako matrikulatzeko aukera dago. EGA ikastaroak ere ematen dira eta interesatuek Zabalotegi 13ra jo edota 76 44 53 telefono zenbakira deitu dezakete.

◆ **Jubilatuen oharrak**

Diputazioak 65 urtetik gorakoentzat "Ruta de los conquistadores" izenburuko 5 eguneko bidaia antolatu du. Pentsio osoko bidaia honetan, besteak beste, Salamanca, Cáceres, Plasencia, Trujillo, Guadalupe, Almendralejo, Mérida edota Oropesa bisitatuko dira. Interesatuek Jubilatuetan edota 900 43 43 43 telefonoan jaso dezakete argibide gehiago. Bestalde, masajista zerbitzua egongo da Jubilatuetan astearte eta ostegunetan 9.30etatik aurrera eta, azkenik, urritik aurrera, yoga, pintura, eskulan eta abesbatza taldeek beren iharduerari eutsiko diote berriz ere. Bertan parte hartzea nahi dutenek izena eman beharko dute idazkaritzan goizez, 10.30etatik ordubatera.



Abuztuko oporren aurretik hasi ziren frontoian berrizte lanak.

Azaro amaieran bukatuko dira Udal Pelotalekuko lanak

Frontoiko berrizte lanak bide onetik doaz

Udal Pelotalekuko berrizte lanak azaroaren amaierarako bukatzea espero da. Construcciones Arregi enpresak lanak amaitzeko epea abendura arte zeukan baina Udalak zertxobait aurreratzeko eskatu dio azaroaren 24an jaialdi bat antolatzeko asmoa dagoelako.

Bien bitartean, frontoia berrizteko lanek aurrera darraite. Dagoeneko 2.50 m.ko pareta egin da errebotean eta errebotearen gainean 3 ilara eserleku izango dira. Era berean, frontoi osoan eserlekuen arteko pasiloak zabaldu egingo dira erosotasun haundiagoa lortzeko eta, beraz, pelotalekuaren kapazitatea pixka bat gutxitu egingo da. Aldagelak guztiz berriztuko dira, prentsarako gela bat egingo da eta frontoiko sa-

rrean ere nobedadeak izango dira. Taberna ezker partean jarriko da sarrera eta irteera errezteko, goiko pisurako eskailara zabalagoa egingo da eta argi gehiago izango da eta elbarrituentzako komuna ere egingo da.

Bestalde, larrialdietarako irteera Ibargarai aldera egongo da. Gogoratuko duzuen bezala, frontoia berrizteko proiektua Anselmo Iñurrategi arkitektoak egin zuen pelotalekua Eusko Jaurlaritzaren Joku eta Ikus-kizunen Sailak jarritako araudiaren arabera egokitu ahal izateko.

Esan dezagun, azkenik, Udal pelotalekua berdez pintatuko dela, partiduak telebistatik eman ahal izateko komenigarria baita, pelotari hobeto ikusten delako.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.


Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ




Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

HEZILAN.



Langileentzako lanbide heziketa

ETENGABEKO
LANBIDE-HEZIKETARAKO
ITUNDUTAKO PLANA



IKASTAROAK 95 /2

Informazio gehiago:
Miguel Altuna Institutua ☎ 76 38 40

IKASTAROA	HASIERA	ORDUAK	PREZIOA
WORD Testu tratamendua	95-10-2	40 ordu	8.000 pzta.
ACCESS Datu basea	95-10-30	40 ordu	8.000 pzta.
EXCEL Kalkulo orria	95-11-27	40 ordu	8.000 pzta.
Automata programagarriak	95-10-2	40 ordu	8.000 pzta.
Makina elektrikoak	95-11-6	40 ordu	8.000 pzta.
TORNU Kontrol numerikoa	95-10-16	40 ordu	8.000 pzta.
FRESA Kontrol numerikoa	95-11-15	40 ordu	8.000 pzta.
AUTOCADez egindako diseinua	95-11-6	50 ordu	10.000 pzta.

Gure flora aberastasuna

Otsalizarra *Sorbus aucuparia*

- **Nolakoa da otsalizarra (*Sorbus aucuparia*)?**

- Arbola txikia izaten da, normalean 10 m. ingurukoa. Nahiko arbola zuzena eta fina da. Ezaugarrien artean, hostoak konposatuak izaten dira (orritxo kopurua beti ere ezparea da) eta hostoen ertza, zerratua. Dena den, zuhaitz hauetan bereizgarriena zera da: alde bategatik lorak mordoxkatan irtetzen direla (usain asko daukate gainera) eta, bestetik, irtetzen diren fruituak.

- **Zein ezaugarri dituzte?**

- Fruituak borobilak dira eta helduta daudenean gorri-gorriak. Oso deigarriak dira eta luzaroan egoten dira zuhaitzean jausi barik. Hori dela eta, pisuaren eraginez, adarra okertu egiten zaie askotan otsalizarrei. Udazken guztian zehar eta neguaren zati batean fruitua zuhaitzetan izaten denez, birigarro eta zozoei oso ondo datorkie, *despentsa* bezala.

Bestalde, fruitua gorri-gorri egoten denez lorategietan ere jartzen da, apaingarri modura, koloreagatik.

"Pagadi edo ariztietan agertzen da batik bat baina hemen ez da sekula oso ugaria izan"



Otsalizarren fruitua (gorria) oso deigarria da.



IÑAKI IRIZAR
(*Biologoa*)

- **Beste propietaterik badauka?**

- Bai, fruituek C bitamina izaten dute eta Europako hainbat herrialdeetan, otsalizarra ugariago den lekuetan, mermeladak eta likoreak egiteko erabiltzen hasi dira. Hala ere, hemen ez da horrelakorik egiten.


Egurrari buruz, esan, oso gogorra dela eta ondo egongo litzateke mendiko birlandaketetan gehiago erabiliko balitz, ikusgarria izateaz gain hegaztiendako garrantzi haundikoa baita.

- **Non aurki dezakegu otsalizarra?**

- Zuhaitz hau Eurasia guztian agertzen da. Pagadi edo ariztietan agertzen da batipat eta esan behar da hemengo basoetan sekula ez dela izan oso ugaria, beti ere han hemenka banatuta egon diren arren. Asko ez dauden arren, udazkenean oso errez identifikatzen da lehen aipatutako fruituen koloreagatik.

- **Baita Bergaran ere?**

- Hemen inguruan San Migeletik Arrolara (Antzuolara) doan mendikate horretan daude gehienak, tarteka-marteka dexente ikusten da. Kanean ere nahiko ikusten da, gehienetan apaingarri bezala eta, zorionez, erreplazio batzutan ere erabiltzen hasi da, Zurradero kanean eta merkatuaren pareko barianteko maldan ere landatu dituzte.



ZABALETA ERROTULOAK

**Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...**

Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

LXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

Bergarako Emakume Abertzale Batzako neska taldea gerra aurrean. Goitik hasita, lehenengo iladan: Ageda Agirrezabal, Jesusa Irala, Juste Amenabar, Eulogi Agirrezabal, Miren Agirreolea, Anita Azkarate eta Asuntxi Idarreta. Bigarren iladan: Hotel Lasako kamarera, Maria Azkarate, Juanita Zabala, Luisa Berbelzu, Isabel Elkoroberezibar, Maria Errasti eta Hotel Lasako kamarera. Hirugarren iladan: Angelita Marcó, Luisa Berasategi, Maria Amenabar, Julia Ereñaga, Balbina Idarreta eta Maria Oianguren. Laugarren iladan: Maria Berasategi, Maria Luisa Zabala, Maria Villar, Bittori Oñate eta Nieves Zabaleta.



Emakume Abertzale Batza: Gerra aurreko emakume abertzaleak

Emakume Abertzale Batza 1922an eratu zen PNVren Juventud Vascatik. Sorreran Cumann nam Ban, irlandako emakume nazionalisten taldeak eragin handia izan zuen. Bergaran 1931n sortu zen eta indar handia izan zuen, 400 emakume izan ziren EABko partaide. Juste (1913) eta Maria (1911) Amenabarrek buru-belarri jardun zuten EABn lanean.

Zer zen Emakume Abertzale Batza?

- Abertzaletasunetik, euskaltzaletasunetik eta kristautasunetik sortu zen emakume taldea.

- Zer egiten zenu-ten?

- Gure helburua behartsuei laguntzea -orduan gaur baino jende behartsu gehiago zegoen- eta euskal kultura eta nazionalismoa zabaltzea zen. Hauteskundeetan lan ugari egiten genuen -zentsoa

buruz genekien-, umee-kin ibiltzen ginen, txistua jo, poxpolinak genituen, dantza egiten genuen, gimnasia ere bai, mitinak antolatu, propaganda, premia zutenei astero ja-

naria ematen genien, gabonetan 250 gabon sari ere banatzen genituen... lan asko egiten genuen.

- Zuek, Mariak eta Justek zein lan zenu-ten?

"Gure lana behartsuei lagundu eta euskal kultura eta nazionalismoa zabaltzea zen. Espioitza lanak ere egiten genituen"
Juste eta Maria Amenabar



Gerra aurreko Batzokiko antzerki taldea:
Lehenengo iladan: Tomas Barrena, Luis Bikuña eta Jabier Ulazua (beste bien izenak ezin izan ditugu jaso). Bigarren iladan: Juste Amenabar, Nieves Zabaleta, Ramon Jauregi, Karmelo Otorola, Maria Errasti eta Natalio Juaristi. Hirugarren iladan: Pilar Murgoitia, Martin Gallastegi, Bittori Oñate, Ines "Mandazaina", Pakita Gallastegi, Luisa Gallarreta eta Sole Lizarralde. Azkenengo iladan: Patxi Azkargorta, Josune Marcó, Miren Linazisoro eta Peli Mujika.

- Egunean zehar aitarekin zapatagintzan lan egiten genuen eta 5.30ak aldean Emakumeetara joaten ginen. Mariak josi egiten zuen, familia batzuk itxura mehean zebiltzala jakiten bagenuen tailerrean josteko makina genuen eta erropak egiten genizkien. Horretaz gain ikurriña nik eramaten nuen herri batetik bestera mitinetan, EAB-n inaugurazioetan, e.a. Ni (Juste) umee-kin ibiltzen nintzen lutelestia, kristau ikasbidea, e.a. erakusten eta antzerkia egiten. Gauetan handien lanak egiten genituen: josi, gantxiloa egin, kantuak ikasi, euskera ere ikasten genuen, Florita

Idarretak Euskaltzaindiaren titulua zuen eta berak erakusten zigun.

- Bergaran noiz sortu zen EAB?

- Bilbon eta askoz lehenagotik zegoen baina Bergaran 1931n sortu zen, dena den, bat batean ez dira sortzen horrelako gauzak, aurretik zetorren. Gerra irten zenean eta oso ondo ikusia zegoen, 400 emakume ere izan ginen.

- Non elkartzen zineten?

- Gauza gutxirekin hasi ginen. Lehengo Hotel Lasaren aurrean zegoen batzokian, behean gizonak egoten ziren. Hasieran goian egon ginen eta

gero aurea eman ziguten: piano eta guztiko saloi bat genuen, klaseak ere bertan ematen ziren, landolak (bulegoak) eta sukaldea ere bagenituen.

- Emakumea bigarren mailan zegoen?

- Ez, batzokian adibidez, independentea zen, gauzak egiteko gizakumei ez genien ezer esaten. Gure zuzendaritza genuen, horretarako genituen landolak.

- Baina politikan ez zenuten parte hartzen, gizonetzkoen zeregina zen.

- Emakume hizlariak eta bazeuden, baina guk ez genuen politika egiten, gizonen kontua zen. Guk

lagundu egiten genuen, politika gauza bat da eta abertzaletasuna beste bat.

- Gizakumeek begi onez ikusten zuten zuten lana?

- Bai horixe. Oso hizlari onak zeuden, ondo lan egiten zen eta emakumea goraldua izan zen.

- Federazioa ere bazenuten.

- Bai, eta beste herrietako emakumeekin ere bagenuen hartu-eman.

- Noiz arte iraun zuten?

- Gerra irten arte, baina gerra denporan ere egin genuen lan. Gerra sortu zenean eta ejerzitza artean sartzeke zegoela Bergaratik gudari asko

KONDE

PANADEROKUA
 Burdiate, 1 ☎ 76 02 57

AZPEITXI
 Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00
Jatetxea

pasatzen ziren. Epaitegiaren ostean arkupe dun patio handi batean sukaldeak ipini zen eta gudariei jaten eman eta lagundu egiten genien.

- Ejerzitoa Bergaran sartu zenean, zer?

- Beste batzuk egin ziren nagusi eta dena laga eta trote egin genuen Bizkaira. Jendeak alde egin behar izan zuen eta orduntxe bukatu zen EAB.

- Nondik nora ibilizineten?

- Lehenengo Duran gon gudarietzako oinetakogintzan ibili ginen baina 37ko martxoaren 31n bonbardaketa ikaragarria izan zen -aita eta anaia hantxe hil zirenez gabe geratu eta Asuara aldegin genuen. Handik Mungiara joan ginen, Gernikako bonbardaketa gertatu zen eta Algortara joan ginen. Han aste bete

Emakume Abertzale Batzako emakumeek lan ugari egin zuten Bergaran. Maria Oianguren gerra aurreko ikastolako andereñoa izan zen, Florita Idarretak euskarazko klaseak ematen zituen, Juste Amenabarrek umeei antzerkia erakusten zien...

bat edo egin genuen. Gaizki ibili ginen, goseak eta gaizki baina hala ere, etxera, etxera etorri nahi genuen. Etxeratu ginenean ezer ez genuen, dena lapurtu ziguten. Bergaran atzera zapatagintzari ekin genion.

- EABn ibilitakook gero zer egin zenuten?

- Ezer ez, ezin zen ezer egin, denek ezagutzen gintuzten eta! Gerra-ekin dena bukatu zen. Gainera EABn ibilitako emakume batzuk zigortuta egon ginen: Angiozar-ko bideko labandero batean soldaduen erropak konpondu eta plantxatzen ibili ginen. Horren inguruan badugu anekdota bat: hango burua, falanjeko bat, neskazalea zen eta lagun egin ginen. Buru horrek labanderotik kotxez ekartzen gintuen; Margaritak ordea, kexatu


egin ziren eta falanjista, horren berri izan zuenean, Lasa parera eraman beharrean plazaraino eramaten hasi zen.

- Zuen burua feminizatatzat duzue?

- Emakumetzat, baina lehenengo feministak geu izan ginen, Emakume Abertzale Batza. Geure eskubideak ondo defendatzen genituen baina berdintasunik ez genuen eskatzen, orduan ez zegoen horrelakorik. Lana besterik ez genuen egiten.

- Eta zein iritzi duzue gaur egun feministek egiten duten lanari buruz?

- Gauza guztietan bezala feminismoan ere estremismoak daude eta hori ez zaigu gustatzen, feminismoak aldarrikatzen dituen gauza asko, abortoa, esaterako, ez dugu onartzen.




Boni Laskurain, 19 • Tfnoa: 76 31 42 - 43 • Faxe: 76 06 80 • 20570 BERGARA

Bergarako Batxilergo Ipintza Institutua

Ipintza Institutuan matrikulatutako ikasleei dei egiten zaie 95-96 ikasturtearen aurkezpena hilaren 26an, asteartea, izango dela eta. Era honetan egingo da:

11.30: 1. mailako ikasleak
12.00: 2. mailako ikasleak
12.30: LOGSEko ikasleak
13.00: UBiko ikasleak

Donostiako Nazioarteko Zine Jaialdia jarraitzen al duzu?



Jaio Mendibil
16 urte, ikaslea

Ez, ez dut jarraitzen. Egia esan ez zait Zinemaldia interesatzen.



Edurne Gallastegi
32 urte, langilea

Ez daukat astirik eta aurten ez dut zinemaldia jarraitu. Hala ere zinea gustoko dut.



Luis Fernando Zeziaga
46 urte, langilea

Bai, oso jaialdi garrantzitsua da eta egunkarietan dakarrenari begiradaxo bat botatzen diot. Ondo ikusten dut horrelako jaialdi bat antolatzea.



Edurne Zabaleta
30 urte, langilea

Ez, astirik ez daukadalako. Hala ere, oso inportantea da eta Euskadirentzat oso jaialdi ona dela pentsatzen dut.



David Reglero
25 urte, langilea

Bai, irratic eta telebistaz zertxobait bai. Zer gustatzen zaidan? Almodovarren kuadrilaren kontuak eta horrelakoak.



Mari Carmen Barrenetxea
38 urte, langilea

Ez dut gehiegi jarraitzen, asti haundirik ez daukat eta. Zine izarretan fijatzen naiz batez ere, Mel Gibson esate baterako gustatzen zait.

INGELES FRANTZESA

MATRIKULA ZABALIK!!

95-96 IKASTURTEA

- HASIERA: Urriak 2
- MAILA GUZTIAK
- ADIN GUZTIAK
 - Haurrak
 - Gazteak
 - Helduak



INFORMAZIOA:

Begarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87



Patua esistituko balitz...

...Ez nuke inolako problemarik izango erabakiak hartzerako orduan eta guztia askoz errezagoa izango litzateke. Baina ez, ez dut patuan edo destinuan sinesten eta horrek amorru bizian jartzen nau. Adibidez, erabaki bat hartu behar izateak beste bat atzean uzten duzula esan nahi du, zure bizitzan zer suposatuko lukeen jakin gabe. Hau da, bide bat aukeratzu gero bestea frogatzea ezinezkoa zaigu bizitza oso laburra baita. Pentsamolde hau oso ezkorra denez, kriston buruhaustea izaten ditut eta ondorioz destinua edo antzerako zerbait ikusten ahalegintzen naiz.

Lagun batek adibide hau jartzen zidan: pertsona bat gustokoa duzunean behin eta berriro topo egiten duzu berarekin eta askotan nahi gabe; hau kasualitatea ote da? edo norberaren gogoak sortzen duen zerbait?

Bere ustez, pertsonon nahi edo desioak bide bat hartzerako garrantzitsuak eta bide hau izango litzateke "patua" edo... Inkontzienteki sortzen dugu patua, bide bat hartu zein beste, azkenean toki berdinerara heltzen gara.

Iraila jende askorentzat erabakiak hartzeko hilabetea da (ikasketak direla, lana, etab...). Beraz, hobe nire lagunak diotena sinestea eta inolako arazorik gabe erabakiak hartzea, gehiegi pentsatu gabe..., ze bestela akabo!!

Jon Ander BENGOA



Egoera kritikoa

Bosgarren legealdi honen osasun egoera kritikoa da. Eguna joan eguna etorri bizi dugun egoera politikoa gero eta nahasiagoa, eta gero eta larriagoa bihurtzen ari da.

Egunero egunero kaleratzen diren informazioen arabera, egoerak ezin du askoz gehiago iraun, nahiz eta Felipe González presidentek hauteskundeak aurreratzeko asmo askorik ez izan.


Eta badirudi jarrera horretan jarraitzeko alderdiaren ejetibaren babes duela. Eta gu bitartean, harrizko gaitasuna galduz goaz. Roldán, GAL kasua, Lasa eta Zabalarena, eta beste zenbait kasu nahiz eta oso garrantzitsuak izan, indarra galtzen ari dira ateratzen diren berriekin konparatuta.

CESIDenak hitzik gabe utzi bagintuen ere, orain Mario Conde eta Gobernuaren arteko "txantxia-negoziaketa" lur jota uztekoa da. Hala ta guztiz ere ez dirudi gauzak asko aldatuko direnik eta berdin jarraituko dugu udaberrirarte, Gonzálezek egutegia, bere egutegia, bete arte.

Aipatu aipatu da azken bolada honetan PPrent alternatiba ikusita hobe dela hauteskundeentz aurrerapena ez bultzatzea; agian ez dugu ahaztu behar gobernatzeko modu bakarra ez dela gehiengoaren formula.

Ane Miren LIZARRALDE

UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA 1995-96 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEAK



LEHENENGO EPEA: Irailaren 15etik urriaren 18ra arte.

BIGARREN EPEA: Urriaren 2tik 31ra arte.

ARGIBIDEAK: UNED-BERGARA Ikastetxe Elkartuko idazkaritza.

20570 Bergara Tfnoa: 76 13 42 / 76 13 43

BULEGO ORDUAK: Asteartetik ostiralera 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara.

Larunbatetan, berriz, 10.00etatik 13.00etara (urritik aurrera). Asteletan itxita.

ARREGUI, E.M.




ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



Mikel Elkoroberezibar eta Jone Larrañaga, "Berrigara Gida 96"-ko komertzialak.

■ **Berrigara Gida 96**

Aurreko bi urteetan bezala BERRIGARAK herriko komertzio, lantegi eta profesionalen eta beste hainbat zerbitzu interesgarriren telefonoak biltzen dituen **Berrigara Gida 96** kaleratuko du urte amaieran. Dagoeneko Gida prestatzen hasi gara eta datorren astetik aurrera **Mikel Elkoroberezibar** eta **Jone Larrañaga** interesatutakoengana zuzenduko dira beharrezko informazioa jasotzeko. Mikel Elkoroberezibarrek Bergarako telefonoak bilduko ditu eta Jone Larrañagak, berriz, Antzuolakoak. 5.000 aleko tirada izango duen Gida honetan agertu nahi dutenek Berrigara astekarira (76 03 97 telefonoa) deitu dezakete.

■ **24 ordu irratitik berbetan**

Surra Irratizaleak 24 orduko **"VII Sierra Bravo"** irradi lehiaketa iragarri du biharko. Lehiaketa eguerdiko 12etan hasiko da Gorlan eta, aurreko edizioetan bezala, irratizaleak ahalik eta kontakto gehien egiten saiatuko dira. Parte hartu nahi duten irratizaleek 34. kanala (AM) erabili beharko dute. Bestalde, gutxienez 6 kontaktu edota urrutien lortzen dituztenen artean sariak zozketatuko dira. Mundu zabalean izango dute lehiaketaren berri...



Surra irratizale taldeko kide batzuk Irizarreko lokalean.

IZADI PILI GISASOLA
 Zurradero, 2 behea.
 ☎ 76 58 83

Santiveri 

Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
 Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

ITXASMENDI
ERREKADISTA
 Barrenkale, 36 BERGARA
 ☎ 76 50 64 / 76 13 61

EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE, ARETXABALETA, ESKORATZA eta OÑATIRA.



■ **Kontuz, zuloa!!**

Igandean Salbamenduko Txakurren ikuskizunera hurbildu zirenek kontu haundiz ibili behar izan zuten **Labegarrietako zubi zaharra** pasatzerakoan. Zubia, argazkian ikus daitekeenez, egoera nahiko txarrean dago eta horrez gain tranpak ere baditu. Despistatuta ibiliz gero, hanka bertan lagatzeko arriskua dago eta beraz dagokionari pasabidea konpontzea edo bestela ixtea eskatuko genioke. Espero dezagun Industrialdea egiten denerako zubiak itxura hobea izatea...



Argazkietan ikus daitekeenez zuba oso txarto dago eta oinezkoentzako arriskua nabaria da.

Zertan dihardute ba?



Joseba Lizarralde 30

urteko baserritarra izango da Elosuko auzo alkate berria. Zeresan ugari eman zuten orain 4 urte Elosuko auzo alkatearen izendapenak. Udal Gobernuak Manuel Oruesagasti aukeratu zuten eta auzoak aukeraketa berak egin behar zuela aldarrikatu zuten. Orain, bozketa egin da eta bertako emaitzen arabera Joseba Lizarralde izango da auzoko ordezkaria. Beste auzoetan honako hauek izan dira hautatuak: Felipe Altuna Elorregin, Gorka Elorza Angiozarren, Martin Elgarresta Basalgon, Iosu Agirrezabal Osintxun eta Aitor Belategi Murinondon. Aste honetan bertan aukeratzekoak ziren Ubera eta San Juango auzo alkateak.

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
 Ibargarai, 2
 ☎ 76 51 65


Mikel Gaztelurrutia
 PIANO ETA SOLFEO KLASEAK
 (Goi mailako titulaziodun maisua) 
 ☎ 76 50 59

Simon Arrieta, 3
Gorka
OINETAKOEN KONPONKETA
 Mota guztietako konponketak Bizkortasuna eta *garantia osoa*

Marisabel Hurtado

Urretxuarra jaiotzez, Marisabel Hurtadok (4 seme-alaba) bergarartzat du bere burua. Orain 17 urte "Giartzu" gimnasioa zabaldu zuen eta hor jarraitzen du, herritarrak forman egoteko lana egiten. Bere gimnasioan 250 bat lagun ari dira.

- Forman egoteko, zenbat ordu gimnasia?
- 45 minutu-ordubete.
- Beste kirolik egiten duzu?
- Pesak, footing eta aerobica.
- Gustora zure gorputzarekin?
- Guztiz.
- Dietarik egiten duzu?
- Janari orekatuak hartu, besterik ez.
- Janari bat?
- Paella on bat.
- Eta jaten ez duzun zerbait?
- Gibela.
- Ura ala ardoa?
- Ura.
- Zenbat ordu lo?
- 7-8.
- Dutxa hotza ala beroa?
- Hotza.
- Perfume bat.



"Sasoitsu egoteko egunero ordubete gimnasia egiten dut. Ur hotzaz dutxatzen naiz eta fruta gosaltzen dut. Astean zehar ez dut telebistarik ikusten eta Donostiako zinemaldia prentsatik jarraitzen dut. Mel Gibson ala Keanu Reeves? lehenengoa nahiago"

- Miss Dior.
- Zer gosaltzen duzu?
- Fruta.
- Egunkaria goitik behera irakurtzen al duzu?
- Larunbat eta igandetan bakarrik.
- Farrarik egiten duzu?
- Noizean behin.
- Udazkena atsegin duzu?
- Bai.
- Kolore bat.
- Urdina.
- Telebista zenbat ordu?
- Astean zehar batere ez.
- Futbolaz asperturik zaude?
- Aguantatzen dut.
- Astebukaerarako plan on bat?
- Zaldian ibili, kostaldera joan, ondo bazkaldu, eta etxean liburu bat irakurri.
- Idazle bat?
- Robert Lancey.
- Donostiako Zine Jaialdia jarraitzen duzu?
- Egunkarietatik.
- Keanu Reeves ala Mel Gibson?
- Mel Gibson.
- Ordu aldaketa atsegin duzu?
- Bai, ondo datorkit.
- Irla desertu batera zer eramango zenuke?
- Gizon bat, musika eta liburuak.
- Zer daramazu boltsan?
- Giltza mordo bat, ezpainetarako brilloa, perfumeren bat eta dokumentazioa.

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78

EDEL
TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA

TABERNA
ZAHARRA

Jatetxea

bazkari eta afariak

Tfnua: 76 21 21
ANGIOZAR

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Gastei-zen. Ikasleentzat egokia. ☎ 76 14 60.

Pisua salgai Antzuolan. ☎ 76 60 39.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Baserría salgai Elosun. ☎ 76 57 24.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 27 39.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisua salgai Zarautzen. ☎ 78 19 50.

Pisua salgai Martokuan. ☎ 76 35 50.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 25 20.

Pisua salgai Bolun. ☎ 76 54 98.

Estudioa alokatzen da Benidormen (bi pertsonentzat). Iraileko bigarren hamabostaldia, 30.000 pta. ☎ 76 23 43.

DENETARIK

Pisua konpartituko nuke Bergaran. ☎ 76 38 32.

Korrea gorridun Lotus erlojua galdu nuen ostira-lean Usoa eta Ariznoa artean. ☎ 76 64 71.

Kawasaki KX 125 motorra salgai. ☎ 76 25 50.

Mendiko bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

Karabana bat salgai (berri-berria). ☎ 76 10 09.

Bilbon pisua betetzeko bi lagun behar dira. ☎ 76 30 21/ 76 47 85.

Karrerako bizikleta salgai. Prezio interesgarria. ☎ 76 18 78.

Ehiza txakurra salgai. 8 hilabete. 15.000 pezeta. ☎ 76 08 58.

Donostian pisua osatzeko 3 lagun behar dira. ☎ 76 64 62 (Gorka).

Larrun aldizkariaren lehen 11 aleak saltzen ditut. ☎ (945) 22 95 71 (Oskar).

Neska bat behar da Donostian pisua osatzeko. ☎ 76 42 76.

Leioan pisua betetzeko bi pertsona behar dira. ☎ 76 30 82 (Aintzane).

Ikasle batek pisua konpartituko luke Deustun edo Ibarrekolandan (Bilbon). ☎ 76 32 85 (Ivan).

LANA

Aleman klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

Haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko neska euskaldun bat behar da. Interesatuak deitu lehen bait lehen. ☎ 76 06 69.

Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxeak garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Gutxitu psikikoen hezitzaile batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 52 08.

OHOko klaseak ematen dira. ☎ 76 21 00 (Iñigo).

Esperientziadun neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

Esperientziadun neska batek ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 28 16.

Matematika eta zientzietako klaseak. ☎ 76 31 31 (Juanma)/ 76 45 80 (Andoni). Barrenkale 13, 3.a.

Ingeles Filolojia duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Pertsona bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 01 11.

Hezitzaile batek zaharrak edo haur atzeratuak zainduko lituzke. ☎ 76 38 99.

SUBIJAi

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 0 2

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta Plaza, 3 behea
☎ 76 21 65 / 76 24 45

GALLASTEGI

Jostundegia

mahoizko lanerako jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85



"Ordenadorez landutako argazkiekin lan egin izan dut, baina gustorago nago plumilazko marrazkiekin "

"Arte elkarteetan sartzeari ez zait gustatzen, nahiago dut bakarka lan egin, libreago sentitzen naiz eta"

MIKEL MURGIZU, ARTISTA

"Arteaga eta Otañoren lanetan asko fijatu naiz, niretako maisuak dira"

Mikel Murgizuk (33 urte) betidanik izan du artearekiko grina. Arte ikasketak egin ez badi-tu ere, marrazkiak egiteko zaletasuna txikitatik datorkio. Azken bi urteetako astialdia plumatxoz egindako marrazkiak egiten eta buztinaz egindako eskulturak lantzen eman du. Etxeko ganbaran sartutako orduen fruitua da datorren asteazkenean Kultur Etxean zabalduko duen erakusketa.

- Zer erakutsiko duzu Kultur Etxean?

- Alde batetik, plumilaz egindako 20 bat marrazki erakutsiko ditut. Gehienak Bergarako lekuen antzinako argazkietatik ateratakoak dira eta erretraturen bat ere bada tartean. Marrazki batzuk tinta txinaz margotu ditut. 40 bider 30 zentimetroko laminak dira. Bestalde, 2 eskultura ere jarriko ditut, bata Bergarako Santo Kristo hilzorikoarena eta Surrako gurutzearena bestea. Eskultura txikiak dira, apaingarri gisa etxeko gelaren batean edota dozein bulegotan jarri daitezkenak. Moldeak buztinaz egin ditut, baina



"Betidanik gustatu izan zait marrazkiak egitea"

eskulturak erretxinaz eginak daude eta gainera brontzeko bainua dute. Horrez gain, ordenadorez manipulaturako antzinako 4 argazki ere jarriko ditut seguru.

- Lehen ere egin duzu ordenadorez manipulaturako argazki erakusketaren bat...

- Bai, orain dela bi urte egin nuen, baina ordenadoreaz aspertu egin nintzen eta eskuz egindako lanekin askoz ere gustorago geratzen naiz, baliu haundiagoa du nire-

tzat, lan gehiago eskatzen badu ere.

- Plumatxoz landutako marrazkiekin burubelarri ekin diozu. Otaño eta Arteagaren testigua hartzeko asmoz?

- Bai, euren gaitasunarekin ikasi dut, niretako maisuak dira. Arteagaren marrazkietan, batez ere, asko fijatzen naiz. Orain dela bi urte ekin nion era honetako marrazkiekin eta aurrerantzean grabatuak egiteko makina bat erosi eta mundu horretan sartzeko asmoa daukat.

- Esan dezakegu autotodidakta zarela?

- Bai, betidanik gustatu izan zait marrazkiak egitea eta etxean ere guztiak egon izan gara, modu batean edo bestean, artearekin lotuta. Anaia eta biok aritzen gara ganbaran eta elkarrekin lan egin izan dugu behin baino gehiagotan.

- Eta kolektiboren batean sartzeko asmorik ez?

- Simon Arrieta zera-mika taldekoekin eta Pol-Pol Argazki taldekoekin harremanak izan ditut eta BEARTEko kide ere baina ez zaizkit elkarrekin gustatzen, nahiago dut nire kontura lan egin.

"Bergarako hainbat lekuren antzinako argazkietatik ateratako plumilaz egindako marrazkiak eta pare bat eskultura erakutsiko ditut"

Frontoiaren etorkizuna dela eta, pilotazaleak kezkatu

Udal pilotalekuan

birgaitze lanetan ari badira ere (obrak azarorako amaituko dira eta ziurtatuta dago kantxa berdez pintatuko dutela), Eskutaldea enpresa, frontoiaren arduraduna, udaren gertatutakoa konpontzen ari da.

Izan ere, Eskutaldea enpresan, kontratoarekin, 4 pelotari gelditu dira bakarrik: Koka, Arroyo eta Oregi anaia bergararrak. Galarza, Eugi, Unanue, Etxaniz eta Zezeagak Altirekin fitxatu dute eta azken urteetan pilota profesionala enpresa ezberdinen artean banatuta izan den arren, Enpresas Unidas desegin ondoren, esan daiteke Asegarcek duela gaur egun pelotaren monopolioa.

Bergaran zer?

Enpresas Unidas desegin ondoren, Eskutaldea kontratua sinatu zuen Bergarako Udalarekin, datozen urteetan Bergarako Udal Pilotalekua errentan hartzeko. Baina, pelotari kuadro barik geratu dela kontutan hartuta, pilotazale bergararrak kezkatu daude herriko frontoiaren egoerari buruz.

Eskutaldearen zatirik haundiena duen Iñigo Idarretak zera esan digu: "Egoera zaila da, baina ardura batzuk hartu ditugu eta aurre egin behar zaie. Pitxarra mila zatitan apurtu da eta orain zati horiek berriz

bere tokian jartzea da gure helburua. Etorkizunean zer egingo dugun? Oraindik ez dakit, baina garbi daukat oztoporik ez dugula jarriko irteeraren bat aurkitzerako orduan".

Une honetan gauzak nola dauden kontutan hartuta, Eskutaldea ezin du pilota partidurik programatu: "Ez daukagu pilotaririk partiduak eskaintzeko eta espero dugu frontoia berriz zabalitzen denerako irtenbidea bilatuta izatea. Bergaran pilota partidu onak ematea da gure helburua, ez dakigu nola, baina guk ahal duguna egingo dugu" dio Idarretak.

Etxaniz eta Zezeaga Altirekin

Jose Mari Zezeaga eta Jokin Etxanizek Enpresas Unidaseko enpresarietako batekin, Altirekin, "derrigorrez" fitxatu behar izan dute: "Gure asmoa Eskutaldean jarraitzea edo beste enpresa bat sortzea zen (Lassoa). Baina Unanuek Altirekin fitxatu ondoren, kuadroa hankamotz geratu zen eta galtzen irtetzen ginen arren, ez genuen beste erremediorik izan" adierazi digu Etxanizek.

Bergararrek 3 urterako fitxatu dute Altirekin eta Etxanizen ustez, "Azken hilabeteetan gertatu denaren ondorioz, zailagoa izango dugu jokatzea. Pelotarientzat kal-

tegarria izan da, bakkarren batek sekulako fitxa egin badu ere, asko kanpoan geratu dira eta orain Asegarcek agintzen du".

Eta Oregitarrak?

Aitor Oregik urte baterako kontratua du Eskutaldearekin eta Josebak bi urterako, baina eurek adierazi digutenez enpresak libre utzi die beste norbaitekin fitxatzeko. "Ez gaude oso egoera onean. Etorkizunean abalik eta partidu gehien jokatu eta afizionatueta-

ko torneo batzutan ari-tuko gara". Enpresatik alde egin duten pilotariei eta sortu diren arazoez galdetu diegu bi anaiei: "Dena azkarregi joan da. Gure esperantza Lassoa enpresa irtetzea zen, baina azken ordura arte itxoin ondoren Altirekin joan ziren pelotari gehienak. Eskutaldearekin sinatu genuenean ez genuen hori espero baina borrela suertatu dira gauzak"

Esan dezagun, azkenik, Udalak Eskutaldearekin sinatutako kontratua mantentzeko asmoa duela.



Fernando Ugarte eta Fernando Dublang, Eskutaldeko enpresariak uda aurretik Bergarako Udaletxean egindako aurkezpenan.

Futbito elkarte berria osatu da



Azken txapelketako kopako eta ligako irabazleak.

Labegarrietako futbito txapelketa datorren asteburuan hasiko da. Izan ere, joan zen asteazkenean bilera bat egin zuten aurten jokatuko duten 47 taldeetako ordezkariak eta arautegia onartu zen. Antolatzaileek jakinarazi dute hurrengo asteburuan jokatzeko derrigorrezkoa dela jokalaria guztien argazkiak antolatzaileei ematea. Horretarako, hurrengo asteartean San Antonioko Gure Ametsa elkartearen egingo dute bilera arratsaldeko 7etatik aurrera. Aurten antolaketa batzordea BKEtik irten egin da eta Lagunak areto futbola agrupazioa sortu dute eta lokal bat lortu arte San Antonioko elkartearen egiten dituzte bilerak. Futbol partiduak herriko kaleetan jarriko dituzten kartelen bitartez iragarriko dituzte eta ia bezala txapelketan lau maila ezberdin izango dira.


San Martin Herri Krossa larunbatean

Larunbatean arratsaldeko 6etatik aurrera kross herrikoia jokatu da, Zaleak taldeak eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta. Lasterketan parte hartzeko ordu erdi lehenago San Martin plazan eman beharko da izena eta partaidetza debaldekoa da. Adinaren arabera hiru maila ezberdin izango dira. Lehen kategorian 14 urtera artekoak izango dira eta 1.200m egin beharko dituzte. Lehenengo hirurentzat dominak izango dira. Bigarren mailan 14 urtetik 18 urtera bitartekoak izango dira eta hauek 3.000m egin beharko dituzte. Lehenengoak 5.000 pza jasoko ditu, 3.000 pza 2.ak eta 2.000pza 3.ak. Azkenik, 18 urtetik gorakoek 9.000m egin beharko dituzte. Irabazleak 10.000 pza poltsikoratuko dituen bitartean, 2.ak 7.000 pza eta 3.000 pza 3.ak. Bergarar*onenentzat ere izango dira sari bereziak eta 50 lehenengoentzat kamisetak banatuko dira.



Eskubaloia protagonista

Asteburu osoan zehar Labegarrieta kiroldegian BKEko eskubaloi talde ezberdinek 4 torneotan jokatu dute. Torneo guztiak hiru hiruren aurkakoak izango dira. Lehen larunbat goizean 11etan, jubenil mutilek Arrasate eta Elgoibarrenen aurka neurtuko dituzte indarrak. Arratsaldeko 4,30etan senior mutilak Gasteizko Gure Auzune eta La Salle Legazpiren aurka jokatu dute. Igandean goizeko 10etan kadete neskek Aloña Mendi eta Lakua O3ren kontra jokatu dute eta jubenil neskek, aldiz, goizeko 11,30etan neurtuko dituzte indarrak arerio berberen aurka.



Aritz Aranguren, senior taldeko jokalaria.

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Biltegia Tellerian, Labegarrietan.
Tfnoa: 76 27 93



ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

FUTBOL PARTIDUAK

BKEko futbol talde nagusiak igande honetan jokatu du denboraldiako hirugarren partida Ordiziaren aurka Agorrosinen arratsaldeko 4.30etan. Javi Pérezen mutilek bina berdindu zuten joan zen astean Vasconiaren kontra. Bestalde, 2. mailako jubenilek larunbatean jokatu dute Ipintzan arratsaldeko 4.30etan Arrasateren aurka. Aurreko jardunaldian 0 eta 3 nagusitu zitzaizkion Eibartarrak taldeari.

WATERPOLO JOKALARIAK

Aurten waterpoloan jokatu nahi duten 14 urtetik gorako neska-mutilak datorren ostiralean, hilak 29, iluntzeko 8.30etan igerilekuetara gerturatu daitezke.

NAZIOARTEKO XAKE OPENA

Joan zen asteburuan jokatuak Bergara Hiria, III. Nazioarteko Xake Opena arrakasta handiz burutu zen herriko Kiroldegian. Guztira 40 xakelari aritu ziren lehian, gehienak Euskal Herriatik bertatik etorritakoak, estatutik eta atzeritik etorritakoak ere asko izan baziren ere. Ruiz Alejandro kantauriarra izan zen onena. Bere atzetik Rafael Alvarez (Euskadi), Mitkov Nikola (Mazedonia), Jesus Iruzubieta (Euskadi) eta Diego Adla (Argentina) sailkatu ziren.

Iban Rodriguez

Rallyetarako laguntza bila

Iban Rodriguez orain arte zirkuitoko lasterketan aritu da eta aurreten rallyetara eman du saltoa. Denboraldiak dituen 10 probetatik 3tan izan da bakarrik, ez baitu dirurik falta zaizkion lasterketak korritzeko.

- Zer moduz korritu dituzun lasterketak?

- Lehenengoa Canariasen izan zen eta bigarren gindoazenean gauez arazoak izan nituen argiekin eta kolpe bat hartu eta laga behar izan nuen. Hurrengoa Santanderren izan zen eta rallya 2. postuan bukatzea lortu nuen. Azkena, Cordoban, lehen bi tramoak irabazi ondoren hirugarrenean kanbioarekin arazo batzuk izan eta gero ezin izan nuen bukatu. Hor dirua bukatu zitzaidan eta orain falta diren azken bi probak korritzeko dirua bilatzen ari naiz.

- Ezberdintasunik zirkuito eta rallyen artean?

- Rallyetan asko inprobisatu behar duzu eta kopilotoaren laguntza ezinbestekoa da. Berak esaten dizunari jarraitu behar diozu eta kodigo berezi bat ere sortu dugu elkar komunikatzeko. Nik batetik zazpita dut eta bata 180º kurba dagoela esan nahi du eta zazpiak azeleradorea zapaltzeko esan nahi du. Zirkuitoetan gidatzean estatikoagoa da, dena berdina. Baina rallyetan tramo guztiak aurretik aztertu arren, zerbait ezberdina dute.


- Ekainetik korritu gabe zaude eta ze gestio ari zara egiten datorren urtean berriz bueltatzeko?

- Denboraldi osorako 12 milioi pza beharko ditut eta ate asko ari naiz jotzen laguntza eske. Datorren urterako hotelak debalde izango ditut, asistentzia Bergarako lagunek egingo dute eta kotxea ere aldatu egingo dut. Aurten Clio-Williams batekin ibili naiz eta zurrereaz Peugeot 106 batekin ibiliko naiz. Bergarako jaietan txozna bat jartzeko asmoa daukat la-

gunei esker eta ea aurrera egiten dudana.

- Gogorra al da?

- Bai, faktore asko daude hor, eguraldia, karreterak... beti arazoak daude. Rally bat egiteko astebete lehenago joaten naiz eta gero asteburuan bi egunez aritzen gara. Egunean 12 edo 13 ordu sartzen dugu kotxean eta oso gogorra den arren, oso pozik nago, baina dirurik gabe. Baina nirekin aritu den kopilotoak, Chus Purasekin ibilitakoa, jarraitzeko esan dit eta nire aldetik ahal dudana egingo dut.



"12 lasterketatik hiru bukatu ahal izan ditut bakarrik".

"Rallyetan inprobisatu egin behar da eta kopilotoaren laguntza beharrezkoa da"



Flakuak eta potoluak

1 963an Mekolaldeko futbol zelaixan, Osintxuko flakuak bertako potoluen kontra jokatu zeben. Partidu akaberako emaitza ez dakigun arren, erretratuko jendia pozik agiri da, bildots eta guzti. Partiduko referia Ostolaza izan zan. Hara zeintzuk dien ezkerretik eskumara:

Goiko illaran:

Sotero Oregi, Sabino Akizu, Simon Agirrezabal, Jose M. Zangitu, Rafael Albisua, Rosario Baquerin, Pedro Agirre, Jose M. Zenitagoia, Jose Migel Salaberria, Jabier Salaberria, Jesus Aizpurua "Mugarri", Zakarias Larrañaga, Angel Fernandez, Jose Agirrezabal.

Erdialdeko illaran:

Luzio Agirrezabal, Jose Luis Elizondo, Jose Inazio Garaikoetxea, Jabier Etxeberria, Jose M. Gabilondo, Lorenzo Lete, Patxi Bengoa "Izarra", Txomin Etxeberria, Alejandro Alberdi.

Aurre-aurrian:

Bixente Mujika, Teodoro Agirre.

*Erretratua: Rosario Baquerin
Testua: Felipe Iñarra*

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik




Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



EUSKARAZ
BADAKIZU?



EUSKALDUNA
IZAN NAHI
DUZU?



ADITZAK?



ZER, AURTEN
MATRIKULATUKO
AL ZARA?



ZER MODUZ
E.G.A.?



BADAKIZU
NON
GAUDEN!!

Masterreka 13, behea
☎ 76 05 18 Bergara
Matrikula egiteko ordutegia:
10.00-13.00 eta 17.00-20.00

Laister inauguratuko
dugu AKULU
Euskalteci berria!!

æk

HALTZARI

Bolu, 24 behea

BERGARA (Gipuzkoa)

Tfnoa eta Faxa: (943) 76 30 57



Aprobetxa ezazu

FAGOR  en

SUKALDE ALTZARIAK

eskaintza
paregabea

Jantzi ezazu

kolore berriekin

zure

*kalitate*dun

sukaldea

ADI ORAIN!!

Irailaren 15etik urriaren 15era
bitartean, PREZIO BEREZIAK

